

BALIO PROPOSAMENA

Gazte talde bat gara, eta pentsatzen dugu gazteak leku bat behar dutela, non elkartu eta segurtasuna izan. Zergatik joan behar zara diskoteka batera oso urrun ? Zergatik ikasi nahi baduzu, edo lasai egon zerbait hartzen, beste leku batera joan?

Gure ideia hori elkartzean datza: gune bat, non gazte guztiak elkartu ahal dira, alde batetik, festa egoteko, eta bestetik, elkartzeko.

Goazen zehaztera!

Bigarren mailako kooperatiba bat izango gara, hau da, hiru enpresa bilduko gara, kooperatiba hau egiteko. Gure helburua ez da ekonomikoa bakarrik, baizik eta soziala, sustatu nahi duguna gazteak elkartzea delako. Beraz, FABRIK, hiru enpresa izango ditu bere barnean, honela, bakoitzak daukana aportatuko du, eta, etekina, zati berdinetan banatuko da. Enpresa horiek izango dira: Diskoteka enpresa bat, aisialdi enpresa bat eta teknologia berriztagarri enpresa.


Proiektuarekin hasteko, ditugun ondasunez aparte, 10.000€ inbertituko ditugu, gero, enpresarekin berreskuratuko ditugunak. Horretaz aparte, diru laguntzak ditugu, kooperatiba garelako.

Herritik gunera jaisteko, autobus zerbitzu bat egongo da gauetan, gazteen segurtasuna ziurtatzeko. Honela, sustatuko dugu “festan bazoaz eta edaten baduzu, ez gidatu”

Diskoteka bat egongo da. Sarrera 18 urtetik aurrerakoa izango da. Bi terraza izango ditu, bat itxita, beste bat irekita. Diskoteka enpresak guzti hau kudeatuko du.

Aisialdi enpresak, bestalde, aisi gunea kudeatuko du. Bi solairutan. Alde batetik, lehengo solairuan, lokalak egongo dira, gazte ekintzaileak sustatzeko, haien negozioa jartzeko: tabernak, jatetxeak... Bestetik, bigarren solairuan, aretoak eta ikasgelak, gazteentzat hitzaldiak egongo dira baita liburutegi bat informazioa bildu nahi badute. Honela, gune didaktikoa eta aisiarako izango dute.

Gune berde bat, denbora aire librean igarotzeko edota hor jateko.



AMIA

	INDARRAK	AHULEZIAK
BARNE-FAKTOREAK	-Teknologia -Lanpostuak	-Zalantza
	AUKERAK	MEHATXUAK
KANPO-FAKTOREAK	-Beste herrietako gazteak etortzea	-Beste guneak -Industria

Gure enpresaren behaketa egiteko **AMIA** balantzea egitea erabaki dugu. AMIA azterketa enpresan eragina izan dezaketen faktoreak aztertzeke metodo bat da. Batetik, indarrak eta ahuleziak daude, enpresaren barnekoak. Bestetik, aukerak eta mehatxuak, kanpo faktoreak. AMIA bitartez lortu nahi dugu gure ahuleziak indar bihurtzen eta mehatxuak desagerraraztea.

Gure indarren artean puntako teknologia dago. Energia berriztagarriekin lan egitea oso puntu garrantzitsua da. Ere gazteen artean lanpostuak sustatzen ditugula.

Aukeren artean beste herrietako gazteei etortzea ahalbidetzen diegula

Ahulezien artean zalantza daukagu: oso inbertsio sakona da eta ez daukagu ziurtasuna ondo aterako den

Eta mehatxuak beste diskotekak dira, beste guneak. Guztien artean nabarmentzea lortu nahi dugu, EZBERDINAK garelako. eta, bestetik, industria daukagula alboan estetikari kalte egin diolako.

